



ESKOLA KIROLAREN LURRALDE KONTSEILUAREN BILERAREN AKTA

2013ko ekainaren 11ko 18:00etan, Kirol Etxeko Juan Muguerza aretoan, Eskola Kirolaren Lurralde Kontseiluaren ohiko bilera izan da. Deialdiaren gai-zerrenda osatzen duten gaiak jorratu dituzte bertan.

Bertaratuak honakoak izan dira:

- * Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik
 - Asier Sarriegi, Kirol zuzendari nagusia, bileran buru izan dena.
 - Aitor Arozena, Kiroleko zerbitziburua.
 - Imanol Fernández de Larrinoa, kirol teknikaria.
 - Ramón Martiarena, Gipuzkoako Kirol Kontseiluaren idazkaria.

- * Gipuzkoako udalen aldetik
 - Arkaitz Angiozar, Lezoko Udalekoa.
 - Edorta Badiola, Zarauzko Udalekoa.
 - Manolo Aierbe, Hernaniko Udalekoa.
 - Ramon Mujika, Elgoibarko Udalekoa.

- * Kirol federazioen aldetik
 - Tetxus Barandiaran, Mendi Federaziokoa.
 - Teresa Ortega, Gipuzkoako Judo Federaziokoa.
 - Alicia Figueroa, Kirol Egokituaren Federaziokoa.

- * Ikastetxeen aldetik
 - Susana Santor, Arrasateko Herri Eskolakoa.
 - Gonzalo
 - Pako Urrestarazu, Ataungo Joxe Miel Barandiaran-ekoa.

Banatutako dokumentazioa

. 2013ko maiatzaren 7ko bileraren akta

1) 2012ko ekainaren 12ko bilkurako akta irakurtzea eta onartzea

Arkaitz Angiozarrek proposatu du aldaketa puntual batzuk egitea erredakzioan. Aldaketak onarturik, bertaratuak aho batez onartu dute akta.

2) 2013-2014ko eskola kiroleko jarduera programa



Imanol Fernández de Larrinoak aipatu egin ditu 2013-2014ko ikasturteko eskola kiroleko jarduera programako berritasunei dagokienez izandako gauzarik adierazgarrienak.

- Gipuzkoako txapelketak, hiru kirol kolektibo modalitateetan, kontzentrazio bidez egingo dira 2014ko maiatzaren 24tik ekainaren 25era bitartean.
- Hockeyrak hastapenean aldaketa txiki batzuk sartu dira.
- Surf Arrauna-ren hastapeneko jarduera bat programatu da.
- Padelean kimu eta haur mailetako Gipuzkoako Txapelketa egin da. Erantzuna ikusirik, modalitate honetako partaidetzako lehiaketak programan sartu dira.
- Azkenean, ez da programan sartu Golf Alai izeneko jarduera, ekonomikoki oso garestia zelako eta ez zuelako Gipuzkoako Golf Federazioak proposatzen, enpresa pribatu batek baizik. Tetxus Barandiaranek aipatu du berari golfarekin zerikusi gutxi zuen jarduera bat iruditzen zitzaioela.

3) *Bestelakoak: zigor espedienteak, etab.*

Asier Sarriegik azaldu du hiru zigor espedienteak instrukzioaren azken fasean daudela.

Ramón Martiarenak azaldu du ezen Antiguoko eta Dunboa klubei irekitako espedienteen –Antiguokori 2012ko abenduaren 6an baimendu gabeko txapelketa bat antolatzeagatik ireki zaio espedientea, eta Dunboari horretan parte hartzeagatik- ebazpen proposamena prestatu eta jakinarazi dela jada, eta une honetan zabalik dagoela klub bi horiek alegazioak aurkezteko duten epea. Kasu honetan proposatzen diren zigorrak honakoak dira: Antiguokori 1.800 euro eta urtebeteko epean zehar diru laguntza eta laguntza publikoak eskuratzeko eskubidea galtzea txapelketa antolatzeagatik, eta 1.200 euro txapelketa horretan bi talderekin parte hartzeagatik; eta Dunboari 600 euro talde batekin parte hartzeagatik.

Kantabriako txapelketa batean baimenik gabe parte hartzeagatik Antiguokori irekitako espedientea -hori ere 2012ko abenduaren 6an izan zen- aurrekoaren fase berean dago, eta 600 euroko zigor bat proposatzen da.

Eta Gol ta Gol elkarteak foru baimenik gabe 2012ko Aste Santuan, udan eta Gabonetan antolatutako kirol jarduerengatik espedientea beste bien puntu berean dago, eta proposatzen diren zigorrak honakoak dira: 4.500 euroko zigorra elkarte antolatzaileari eta Kostkas kirol klubari, eta 300 euroko zigorra María Reina ikastetxeari.

Asier Sarriegik aipatu du ezen, zigorrez gain, eta haur mailako 2. urteko errendimenduan hasteko lehiaketetan eta haur mailan parte hartzeko Foru Aldundiaren baimena behar denez, eta horretarako eskola kiroleko araudia bete behar denez, balitekeela klub zigortuek lehiaketa horietan parte hartzerik ez izatea datorren ikasturtean. Era berean, kirol teknifikazioko unitateak funtzionatzeko baimenaren luzapena emateko bete egin behar denez eskola kirolari buruzko araudia, baliteke klub zigortuen eskolek funtzionatzerik ez izatea 2013-2014 ikasturtean zehar.



Imanolek aipatu du ezen, errendimenduan hasteko lehiaketetara klubak ez gonbidatzeak duen garrantzia dela eta, gonbidapen horietarako beste erredakzio bat bilatzea ari direla pentsatzen.

Aitor Arozenak aipatu du ezen, azkenean, zigor espedienteetatik beretatik at sortzen den albo “zigor” mota honen guztiaren ondorioak lehiaketetan edo futbol eskoletan ari diren haurrek ordain ditzaketela. Horregatik irtenbide proportzional bat bilatu behar da.

Asier Sarriegik uste du zigor ekonomikoak, azkenean, gurasoek ere ordaintzen dituztela.

Bertan direnek aipatu dute gai honek izan dezakeen oihartzuna futbola delako izan daitekeela.

Edorta Badiolak esan du futboleko gertatzen dela klub batzuek beste batzuk salatzea.

Pako Urrrestarazuri ondo iruditzen zaio eskarmentu bat. Errendimenduko lehiaketan parte ez hartzeak ez du esan nahi haurrek partaidetzako lehiaketan futboleko jokatzetik ez dutenik izango, ezta kirolik egingo ez dutenik ere.

Asier Sarriegik esan du halako malgutasun batez jardun beharko dela, eta balitekeela zigorren betearazpena etetea, eskola kiroleko arauak betetzen dituzten bitartean. Gipuzkoako Futbol Federazioak konpromisoa hartua zuen erregelak errespetatzeko eta horiek bete ezean zigorrak izateko.

Edorta Badiolak uste du ezen, beste kirol modalitate batzuetan, pentsa dezaketela salaketarik ezean ez dela zigor espedienterik izango.

Pako Urrestarazuk uste du GFAk ez duela bakarrik geratu behar arauak betearazteko unean, Federazioak ere inplikatu behar baitu.

Aitor Arozenak uste du arazoa Federazioarena dela. Federazioek erantzun egin beharko lukete klubaren arau-urraketan aurrean. Berak konpromisoa hartzen du eskatzen duen orori informazio guztia emateko.

Asier Sarriegik aipatu egin du beste kirol modalitate batzuetan futbolarekiko gertatzen dena.

Aitor Arozenak futbolaren kasua aipatu du, halaber, beste kirol modalitate batzuekiko. Haur gehienak futboleko jokatzeko hasten dira.

Imanol Fernández de Larrinoak aipatu egin du duela hainbat urte eskola kirolaren araudiari egokitzen ez zitzaizkion pilota txapelketa batzuen inguruan izandako zigor espedienteen kasua. Horiek balio izan dute orain araudia gehiago errespetatu dadin, nahiz salbuespen batzuk badiren oraindik.

Era berean, udan zehar diren kirol jardueretan parte hartzea baimentzeko unean hartu diren irizpide malguago batzuk aipatu ditu. Egoerak oso desberdinak direla esan du, halaber: Donosti Cup edo Iraurgi Cup ez dira gauza bera. Datorren ikasturtera begirako kontu batzuk ere aipatu ditu.



Susana Santorrek jarduera horien aseguruaren gainean galdetu du.

Imanol Fernández de Larrinoak erantzun du kirol teknifikazioko unitateek bere aseguru propioa dutela. Eskola kiroleko programetan sartutako jardueretarako homologazioak ere badira, eta horrek aukera ematen du eskola kirolean parte hartzen dutenentzat Aldundiak izenpetutako aseguruja jarduera homologatuetara ere zabal dadin.

Edorta Badiolak eskola kiroleko jardunaldi baten kasua aipatu du, ziklogenesi leherkoraren kontua zela eta bertan behera geratu baitzen. Galdetu du honen inguruan protokolorik izango den.

Imanol Fernández de Larrinoak erantzun dio printzipioz horrelako egoerak sortu ahala konpontzen joango direla, oso egoera desberdinak gertatzen dira eta. Adibidez, ez dira gauza bera indoor egin daitezkeen kirolak eta kanpoan jokatu behar direnak. Lurraldeko zonen artean ere badira aldeak.

Tetxus Barandiaranek federazioek eskola kirolari ematen dioten laguntza teknikoagatiko diru laguntzen ordainketaren inguruan galdetu du. Lehen martxoan ordaintzen zituzten, eta diru asko aurreratu behar izaten da.

Aitor Arozenak adierazi du lehen diru laguntza horiek kanpo enpresa batek baloratzen zituela. Zerbitzutik beretik egitean, diru laguntza ildo honen balorazioa atzeratzen ari diren gauza batzuk agertu dira. Datorren urtean beste era batean egingo da: diru laguntza ez da izango jada eginagatik, baizik eta kasuan kasuko ikasturtean zehar egiten ari denagatik edo etorkizunean egingo denagatik. Gainera, federazio batzuk asko ari dira luzatzen beharrezko datuak emateko. Atzeratzen ari dira, egia da, baina uztailean ordaintzeko ahalegina egingo da.

Eta, aztertzeko beste gairik ez dagoenez, hasieran adierazitako eguneko 19:05ean amaitu da bilera.

Presidentea

Idazkaria